



**El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.  
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

## **Oihane Agirregoitia**

**2024.05.29 Amurrio**

Arratsalde on Amurrio! Arratsalde on Araba!

Ayer estuvimos en Elciego, en Rioja Alavesa, en el sur de Araba, apoyando al sector primario y visitando una bodega y sus viñedos. Y hoy estamos en Amurrio. En el norte del territorio alavés, y me gustaría hablaros sobre industria. Porque Araba es primer sector y también es industria. Euskadi es primer sector y Euskadi es industria.

Euskadi ondo dago, bai. Euskal ekonomiaren %40a industria eta zerbitzu aurreratuak dira. Bikaintasun poloa gara. Eta nabarmendu egin behar da. Industriaren garrantzian, Europaren parean gaude gure lurraldean. Eta STEAM formazioa indartu eta sendotu nahi dugu, kalitatezko enpleguak sortzeko emakumeak eta gazteak erdigunean jarriz. Baina ez gara konformatzen. Ez. Herri hau eraiki dugu eta eraikitzen jarraitu nahi dugu. Horregatik, berrindustrializazioaren aldeko apustu garbia egiten dugu. Europako ekonomiaren eraldaketa eta bultzadaren aldeko apustua egiten dugu. Ekonomia zirkularraren garapenaren paradigmatik abiatuta, deskarbonizazioa eta digitalizazioa aprobetxatzea. Oinarri teknologikoko sektore ekonomiko berrien potentziala aprobetxatzea. Eta trantsizio berdearen aldeko apustu garbia egiten dugu. Deskarbonizazioa lortzeko, akordio bat daukagu Euskadin. Akordio bat, bai. Erakunde publikoen eta enpresen artean. Akordio horretan izenpetuta dago 2050 urterako 0 emisioen helburua beteko dela. Hori guztia industria sektorearen eskutik. Lortuko dugu. Egingo dugu. Aberri hau arduraz zaintzen dugulako. Gure ingurumenaz eta gure pertsonetaz.

Subiranotasun estrategikoaren aldeko apustua egiten dugu. Gai izan behar dugu Batasunaren egungo menpekotasunak ezabatzeko. Europar ezin gara Pekinen eta Washingtonen menpe egon. Ezin gara gorabidean dauden herrialdeen menpe egon. Autonomia estrategikoa behar dugu elikagaietan, segurtasunean, lehengai estrategikoetan, teknologian, energian... Batasunaren subiranotasun estrategikoa, herritarren babesean oinarritua. Guk 'Made in Europe' defendatzen dugu. 'Made in Europe'!

Y, por supuesto, tenemos propuestas en nuestro programa para llevar a cabo esta reindustrialización. Porque sí. A diferencia de otras formaciones, tenemos programa. Un

programa para mejorar la vida de la ciudadanía vasca. En concreto, para la reindustrialización, tenemos 9 propuestas. Nos os voy a leer todas como hice en el debate de ayer con la pesca, pero pero quiero resaltaros 3 propuestas:

1. La lucha contra los elementos que generan la aceleración del cambio climático global
2. Activar y fortalecer el fondo para la soberanía europea, reservando además un porcentaje de las posibles inversiones para las Pymes
3. Y desarrollar el acta digital para enfrentar el dominio en el sector de los gigantes tecnológicos de nuestros competidores globales.

Vamos a proteger los derechos de la ciudadanía y crearemos estándares digitales europeos. Vamos a defender la identidad digital de la ciudadanía frente a quienes quieran usarla en beneficio propio. Vamos a impulsar un gobierno y uso ético de los datos, que garantice los derechos de las personas y evite que se reproduzcan en el mundo digital y en los algoritmos, sesgos contra los que venimos trabajando en el mundo físico. Siempre hemos defendido los derechos de la ciudadanía; y en el ámbito de la digitalización, también. Digitalizazioaren aldeko apustua egiten dugu, bai. Arrantzan; mugikortasunean; osasunean; euskaraz, mundu digitalak euskaraz hitz egin behar duelako... Eta guzti hori talentuaren laguntzaz egingo dugu. Talentua zaindu egin behar da. Eta zaintza hori, gainera, genero ikuspuntuagaz egin behar da. Azken hamarkadan Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa %30etik %10era jaitsi da. Talentua martxan da Euskadi. Talentua gure ongizatearen alde lan egiteko gogotsu eta prest dago!

En definitiva, ¿cómo estamos en Euskadi? Pues en materia de crecimiento económico, el Producto Interior Bruto per cápita en Euskadi está por encima de los 35.000 euros, superando ya la media europea. Las exportaciones han crecido año a año y han superado ya los 32.000 millones de euros. El sector turístico ha experimentado un notable incremento superando los nueve millones de pernoctaciones en el pasado ejercicio. En Innovación y Desarrollo, la Comunidad Autónoma Vasca ha superado la media comunitaria hasta el punto de que la Comisión Europea tiene en consideración a Euskadi como 'polo de excelencia'. Hau da Euskadi. Harro egoteko moduko aberria!

Mañana es el último día para pedir el voto por correo. Se puede solicitar el voto en cualquier oficina de Correos. Pido a la ciudadanía vasca que participe en las Elecciones Europeas del próximo 9 de junio. Nos jugamos mucho. Si vas a estar fuera, vota por correo. Si ya tienes plan para ese día, vota por correo. Pero vota. Por Euskadi y por Europa, pido vuestra confianza. Por quienes nos precedieron. Para parar a los populismos. Para seguir construyendo una Europa fuerte y unida. Una Europa eficaz, cercana y diversa. Podéis contar con nosotras y nosotros. ¡Seremos vuestra voz en Bruselas! Ekainaren 9an bozkatu Euzko Alderdi Jeltzalea! ¡Vota Partido Nacionalista Vasco!